


# HOR KONPON! TXIKIEN TXOKOA

Abrimos las páginas de Pyrenaica a los más pequeños. Pero no les vamos a dar consejos, ni siquiera vamos a escribir para ellos. Vamos a animarles, *hor konpon!* a que nos cuenten a su modo cómo ven la montaña.

Hoy son los alumnos de 7.º grado de la ikastola Lourdesko Ama de Urretxu. Los montañeros de 12 años tienen la palabra.



## “MENDIA”

### BERTSOA

Baserrian zegoen ardi bat txuria jotake bait ari zen edaten esnia, belarra jaten ere oso orlegia; ardiak esan zuen maite dut mendial!

### BERTSOA

Behar dugu ardia mendia apaintzeko loreak baita ere ondo usaintzeko. Ez dago geure esku bera kutsatzeko, izadia da zaintzeko! ta gu salbatzeko

Mendietako gaitzak gizonak dakartza. Desastre hau ikustean hausten zait bihotza. Horrela segiz gero laister da heriotza. Mendiek behar dute gu denon laguntza

Konfiantza osoa det hau esateko. Jendea presto dago gauzak botatzeko. Izadia zikinez beterikan dago horrela ez da mendirik ez kontserbatuko

## ELIZONDOKO MENDIA

Euskal herriko mendi bat naiz eta Elizondoko inguruan egiten dut neure bizia. Oso mendi zahar, itsusi eta bakartia naiz.

Urteetan zehar aritu diren eguraldiek zeharo hondatu naute.

Bestalde, nere belarra zikina dago eta jadanik ez du inork garbitzen.

Sarritan gaztaroko denboraldiak gogoratzen ditut, a ze nolako denboraldiak haiek! Orduan egunero garbitzen ninduten eta askoz ere jende gehiago etortzen zen. Orain ordea oso ezberdina da, ez da animarik ere ikusten, noizbehinka datozen turistak eta arztaiak ezezik eta hauek oso gutxitan agertzen dira.

Turistak bizpahiru argazki atera eta joan egiten dira. Bestalde artzaiaren ardiek nagoen baina zikinago uzten naute. Ez dago ez landare eta ez abererik neure inguruan.

Askotan pentsatu izan dut, ipuietan, sarri, alde batera uzten zuten txitaren antzekoa naizela.


Jadanik zaharra nago eta bista ere galdu dut.

Horregatik mundu guztiari esaten diot, bakarrean gauden mendi guztiak noizbait bisitatzeko.

Mendi zahar guztien desioa berdina da:

«Mendi arrunt bat bihurtzea, eta ez alde batera utzitako mendi bat izatea.»

Idoia Etxebarria



## ERNIORUNTZ

### —Goizeko 7ak

Zoragarria benetan gaurko eguna. Eguzkiaren erdia bakarrik ikusten da oraindik egusentia delako. Orain arte irten den eguzkiaren zatia nahiko tristeza dirudi.

Lehengusu guztiak oso pozik gaude aitona-rekin egun osoa mendian igaro behar dugulako.

Nere lehengusu Aitor zaharrena da eta 16 urte ditu, besteak 14 eta bere izena Yoanes da, hirugarrenak 13 urte ditu eta bere izena Jon da, hurrengoa ni naiz eta 12 urte ditut, nere hurrengoa Ane 11 urtetakoa eta gero nere anaia Iker 8 urtetakoa, hurrengoa Alain 6 urtetakoa eta bukatzeko Edurne 3 urtetakoa. Nere aitona ez dakit zenbat urte izango dituen baina benetan asko direla.

Egun hauek baserrian igaro ditugu lehengusu guztiak, eta milaka ibilaldi egin ditugu aitona-rekin.

Gaur Ernio izeneko mendira joatea pentsatua dugu, Alain eta Edurne oraindik egon ez direlako.

Nere amona momentu hontan bazkariz motxilatari sartzen ari da eta laguntzea noa oraintxe.

—Lagunduko dizut amona?

—Eskerrik asko.

—Txssss, txss... —Anek—

—Zer nahi duzu Ane?

—Aitona joateko esan du.

—Zertarako ba?

—Denei makila bat eman behar digu eta.

—Pixka bat itzaroteko esan, amonari languntzen ari naizela eta.

—Utz ezazu, joan zaitetz aitona-rengana zu zer nahi duen.

Makila hartu eta gauza guztiak prest dardenean bagoatz denok Ernioruntz. Ea gaur zer gertatzen zaigun bidean!

### —8.1/2ak

Bidean gaude orain nahiko zakarra dago ibiltzeko baina aitona emandako makilekin ongi goatz.

—Aitona, suge bat! —dio Edurne—

—Lasai neska zizarea besterik ez da.

### —10.1/2ak

Bide erdia baino gehiago egin dugu, eta ur guztia eran dugu honezkeror.

Edurnek egarria du eta ur tantanik ez du. Bidean ez dago ituririk eta nahiko nekaturik daude txikiak.

### —12ak

Dirudienez iristen ari gara lerro luze bat ikusten da eta. Azkenekoari zertarako dauden lerroan galdetzen diogu eta hauxe erantzuten digu:

—Hor dauden lau anilak, hiru borobilak eta bat laukia, gorputzetik pasatzean erreuma... eta horrelako gaixotasunak kentzen dutela diote.

—Eskerrik asko —dio aitona— nik ere pasatuko ditut orduan.

—Nik ere —Edurne—

—Eta nik —Alaine—

—Baino, zuek ez duzue gaixotasunik.

—Eta zer...

—Ederki ba —aitona— baino ondo begiratu nola egiten duten besteek.

—Bai.

Aitona, Edurne eta Alaine pasatu dituzte anilak eta goraka goaz.

### —12.10

Ernio mendiaren puntan gaude, gurutze asko daude eta Edurne esaten du:

—Aitona, zenbat jende hil den hemen ezta?

—Ez neska, gurutz horiek mendiko elkar-teek jartzen dituzte.

—Jolin! Ba hildakoen gurutzak dirudite.


### —6ak

Egun osoa han igaro ondoren beherako bidea hartu dugu. Denbora gutxiagon jeitsi gara.

### —Gaueko 9.1/2ak

Baserrira iritsi eta osaba-izeba guztiak han daude itzaroten. Oso nekaturik gaude eta azkar afaldu ondoren ohera goaz bihar ikastolakoe dena kontatzeko.

Agur



Inge Azumendi

## MENDIA

Bertso hau egiteko behar dut astia Saiatuko naiz sartzen ahal dudan guztia Niretrat izaten da guztiz pozgarria Osasunez beterik dagoen mendia

Euskal herrian zehar mendiz mendirika eta ez dugu aurkitzen batez zatarrikan Mendira joaten danak ez du kezkarikan ez dagola gure lurra baino oberikan

Asier Otamendi

## K-2 MENDIA

Mendi gailurrera igo eta gero Zaila izan zen jaistea Beherakotan halako baten hausten zaie sokea; ederra gertatu zen orduan hiru pertsona erortzean Herrira jeitsi eta ondoren Hospitalera zuzenean «Oroitza eder» bat geldituzan K-2 mendi gailurrean

Beatriz Ruiz

Oskar Mendizabal eta Xabier Lasa